

Elkartasun deia dakarten joareak

Koldo Sagasti

Aurten hamar urte beteko dira zanpantzar zoro talde batek ikuskizun surrealista bezain epikoa eskaini zuela Palestinako Bil'in herrian. 2006ko uztaila zen eta Judimendiko Joaldunek ez zuten bitan pentsatu Ramallahko urteroko jaialdian parte hartzeko deia jaso zutenean. Palestinan Art Center erakundeak antolatzen du udaro munduko dantza herrikoien topaketa, eta orduko edizioan gasteiztarrak ziren parte hartzekoak. Bidaia gorabeheratsu baten ostean iritsi ziren Ramallahra. Eta han, ezustekoa. Israelek Libanoko hegoadeari eraso berri zion, eta dantzaldia bertan behera utzi behar izan zuten, gainontzeko ordezkaritzek uko egin ziotelako

joateari. Euskaldunek, aldiz, zailena eginazuten, eta prest agertu ziren antolakuntzakoek egokien zeritzoten lekuan jotzeko. Halaxe agertu ziren Bil'in-en, nekazarien herrixka batean, ehun bat laguneren protestaldiaren buruan jotzeko, joarez eta isopoz horniturik tropela gidatuz. GARAk ere azalera eraman zuen orduan balentria haren erretratua izenburu iradokitzaile batez: "Joaldunak Israelgo Armadari oldartu zaizkio". Ekintzak arrasto luzea utzi zuen herrixxako biztanleen artean, baina bidaian parte hartu zutenek bazekiten, keinuez harago, elkartasunak eraginkorragoa behar duela Palestinako askapenean aurrerapausoak eman daitezen.

Horregatik, hamar urte geroago, zanpantzar haiek Arabako Mendialdeko erakundeetan bilatu dute elkartasun keinu hura ekintza eraginkorragoa bilakatzeko giltza. Gauzak horrela, datorren ekainean BDZ (Israelen aurkako Boikot, Desinbertsioak eta Zigorrak) kanpainarekiko atxikimendu ofiziala adierazteko eskakizuna aurkeztuko dute Kanpezuko Udal Batzarrean. Gainera, egitarau oparoa antolatu dute Palestinako egoera eta BDZ mugimendua auzotarren artean gizarteratzeko. Jardunaldiei jai egun batez emango diete amaiera, ekainaren 10ean. Bil'in-go ekintza xelebrea errepikaezina bada ere, hango zintzarrien oihartzunak bizirik dirau, markada bat geroago. •

Behobia-Donostia

Mirari Martiarena

Maidar haurdun dago. Josune haurdun dago. Mikel aita izango da. Urrian jaioko da Nagore eta Aitorren bigarren umea, baita Enararena eta Joanarena ere. Azkenaldian egunero entzuten ditudanak dira. Asko dira nire adin bueltakoak; beraz, moda baino, adina dela ondorioztatzeko ez da oso azkarra izan behar. Haurdunaldien albisteak gertukoenak direnean, jarraian datozen esaldiak ere oso ezagun bihurtu zaizkit: «zuk ere garaia baduzu», «zu ere animatu», «kontuz, arroza pasako zaizu», «nik zure adinerako bi alaba banituen», «izeba izan nahi dut...».

Horrelakoak entzunda nire inguruan bi jarrera daude. Batetik, presio hori benetan sentitzen dutenak, eta, bestetik, umorez

hartzen dutenak. Harrigarria egiten zait presio hori sentitzen dutenak nola itotzen diren, gainera. Ez dakit seguru zergatik den, beraiek haurdun ez daudelako edo zahartzen ari direla konturatzen direlako. Orain arte gu baino zaharragoak ziren haurdun geratzen zirenak eta orain gu baino gazteagoak ere hasi dira. Nire ustez horrek beldurtzen ditu.

Egia da haurdun dagoen gertukoren bat ikusten dudanean inbidia sentitzen dudala. Nire burua imajinatzen dut sabelalde borobil-borobil eginda, baina bost minuturen buruan desagertzen zait inbidia. Ume jaio berri bat besoetan hartzen dudana bakoitzean ama izateko gogoia izaten dut. Beldurrez hartzen ditut, oso hausko-

rrak iruditzen zaizkidalako. Nire burua irudikatzen dut nire umearekin, bularra emanez, paseatuz, kontutxoak esanez... Bai, momentu horietan segituan bihurtuko nintzateke ama. Baina bost minuturen buruan gogo hori ere joan egiten zait.

Ez zait, ordea, amatasunarekin bakarrik pasatzen irrika hori. Behobia-Donostia lasterketaren bukaera ikusten dudana aldiro inbidia sentitzen dut. Entrenatuz eta ongi prestatuta egingo nukeela esaten diot neure buruari. Bost minututan pasatzen zait hori egiteko txirrinta ere. Eta ez dakit zutabe hau bukatuta, ama izan ala Behobia-Donostia prestatzen hasi. Seguruenik parrandarako planak egingo ditut. Gaur Oiartzunen Sagardo Eguna da. •